

PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

Etterik gabeko pertsonak ostalaritza-zerbitzuetan bazkaltzea ahalbidetzen duen Otorduak II programak 285.120 euro izango ditu

Berrikuntza gisa, prestatutako janarien saltokiekin lankidetzan jardungo da, eta horiei esker erantzun azkarra emango da larrialdi-egoeretan

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du 2023ko Otorduak II programarako dirulaguntzen deialdia, 285.120 euroko aurrekontuarekin. Zerbitzu honen bidez, eguneko menua zerbitzatzeko zaie etxerik gabeko pertsonari hiriko ostalaritza-establezimendutan. Halaber, establezimendu horietan, erabiltzaileek ogitarteko edo tupper bat jasotzen dute egun horretako afarirako.

Berrikuntza gisa, programa hau kudeatzen urte eta erdi eman ondoren, taberna eta jatetxeek gain, prestatutako janari-saltokien laguntza izango da (*take away*). Honek larrialdi-egoeretan erantzun azkarra ematea ahalbidetuko du.

2021eko ekaina eta abendua bitartean, 58 erabiltzailek jaso zuten Otorduak II programa, eta 12 ostalaritza-establezimenduk hartu zuten parte. 2022ko urtarriletik azarora bitartean, berriz, 172 erabiltzaile izan ziren, eta 14 ostalaritza-establezimendu laguntzaile.

Donostiako alkate Eneko Goiak adierazi duenez, “2020ko urrian hasi ginen proiektua garatzen, eta 2021eko uztailean abian zen. Helburua da kalean dauden pertsonak, gure hirian geratzeko asmoa badute, eta bestelako laguntzarik jasotzen ez badute, egunean gutxienez bazkari bero bat izatea”. “Datuen arabera, programa arrakastatsua izaten ari da, eta arrakasta horren zati bat diskrezioa da; izan ere, onuradunak tabernara edo jatetxera sartzen dira, bazkaldu eta alde egiten dute, beste edozein mahaikide bezala”, gaineratu du.

Zerbitzu honen onuradun izateko, hirian sustraitzeko borondatea aurkeztu behar da, eta ez da inolako laguntzarik jaso behar, ez ekonomikorik ez gauzatan, elikadura-mantenua estaltzeko. Halaber, jendearentzat irekita dagoen lokal batean jateko behar diren gizarte-trebetasunak izan behar dira.

Hiri Adimenduen Sarea

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du Donostiako Udala Hiri Adimenduen Espainiako Sarea elkartera atxikitzea.

Erakunde honen helburua hiri-azpiegituren eta zerbitzuen kudeaketa automatikoa eta eraginkorra sustatuko duten hirien arteko dinamika sortzea da, baita gastu publikoa murriztea eta zerbitzuen kalitatea hobetzea ere, horrela jarduera ekonomikoa erakarriz eta aurrerapena sortuz.



PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

Kolektibo zaurgarrientzako enplegua

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du mantentze-lanetako eta hiri-zerbitzuetako 8 laguntzailez osatutako brigada bat kontratatzea, langabezian dauden 45 urtetik gorakoentzat lan-esperientzia berria izan daitekeena.

Kontratazio hau Europar Batasunak finantzatutako Next GenerationEU Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan dago.

Kontratu guztiek 6 hilabete iraungo dute, eta % 75eko lanaldia izango dute. Gastua 117.970 eurokoa da, 75.000 euroko dirulaguntzarekin.

Donostian, 2022ko abenduaren 13an



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO
DE ESPAÑA



Berreskuratze,
Eraldaketa eta
Erresilientzia Plana